

Gizarte-langintza komunitarioaren oinarri eta estrategiak. Iruñearen kasua, RETSASO proiektua

Hodei Sarasa Camacho

Soziologia eta Gizarte-langintza Saila, Nafarroako Unibertsitate Publikoa
hodei.sarasa@unavarra.es

Gizarte-zerbitzuen arloan komunitatea hurbiltasunetik jokatzeko duen babes-sistema bezala definitzen dute, bai adituek, baita araudi eta legeek ere: pertsonetatik gertu dagoena, haien gaitasun, zaurgarritasun eta beharretatik hurbil dagoena. Baina, zeintzuk dira komunitatean esku-hartzeko kontuan hartzen diren oinarri teorikoak? Eta erabiltzen diren estrategiak? Gizarte-lanaren arloan egiten den ikerketa esku-hartze zuzenarekin ezinbesteko harreman estua izan behar duela ideia nagusizat hartuta, artikulu honen helburu nagusia bi esparruen arteko konexioa aurkitzea da, alegia, arlo praktikoa eta arlo teorikoa parean jarri eta loturak bilatzea, ezagutza teoriko-praktiko baten mesedetan. Horretarako, alde batetik, gizarte-langintza komunitarioaren oinarri eta estrategien berrikuspen teorikoa aurkezten da, eta, bestetik, hausnarketa hauen "lurreratze" saiakera egingo da, Iruñeko hainbat ekimen eta entitate komunitarioetan arreta jarriz, RETSASO proiektu europarraren esparruan.

Gako-hitzak:

Gizarte-langintza komunitarioa, parte-hartzea, elkarlaguntza, sare-lana, aktibismoa.

En el ámbito de los servicios sociales, tanto las y los expertos como los reglamentos y normativas definen la comunidad como un sistema de protección que actúa desde la proximidad: desde la cercanía a las personas, a sus capacidades, vulnerabilidades y necesidades. Pero ¿cuáles son los fundamentos teóricos que se tienen en cuenta para intervenir desde esa comunidad? ¿Y cuáles son las estrategias que se utilizan? Tomando como imprescindible la idea de que la investigación que se realiza en el ámbito del trabajo social debe tener una estrecha relación con la intervención directa, el objetivo principal de este artículo es encontrar la conexión entre ambos ámbitos, es decir, enfrentar lo práctico y lo teórico para buscar interrelaciones en favor de la praxis. Para ello, por un lado, se presenta una revisión teórica de los fundamentos y estrategias del trabajo social comunitario; y, por otro, se hará un intento por "aterrizar" estas reflexiones a partir del estudio de diferentes iniciativas y entidades comunitarias de Pamplona, en el marco del proyecto europeo RETSASO.

Palabras clave:

Trabajo social comunitario, participación, apoyo mutuo, trabajo en red, activismo.

1. Sarrera: teoria praktikatik berrikustearen erronka

Komunitatea gizarte-langintza esku hartzeko hiru eremu historikoetako bat da, gizabanakoein eta taldeekin batera (Barahona, 2016; De Robertis, 2012); hortaz, komunitatearen definizio edo kotatzeak eta gizarte-langintzaren ekintza edo esku-hartzeak "eskutik helduta" joan dira luzaroan. Gauzak horrela, komunitatearen definizioa eta gizarte-langintzarekin duen harremana oso garrantzitsuak direla esan dezakegu, hiru arrazoiengatik, Sancho Salido-ri jarraikiz (2009):

- Lehenengoa, komunitateak eskaintzen duen administrazio eta lurralde kotatzeagatik; izan ere, kontzeptua lurralde jakin batean egiten diren profesionalen ekintzak eta esku-hartzeak zedarrizteko balio du, bai eta testuinguruan eta lurraldean dauden baliabideak ezagutzeko eta antolatzeke ere.
- Bigarrena, komunitatea giza harremanen eta interkonexioen errealitate gisa ikus dezakegulako, eta, beraz, bazterketa-prozesuak sortzen dituzten (edo, hobeto, sor ditzaketen) harreman-ekintzak aztertzeke eta horietan esku hartzeko espazio gisa.
- Eta, hirugarrena, errealitate eta testuinguru komunitarioek, parte-hartzea sustatuz eta bazterkeria arinduz, gizartea eraldatzeko dituzten potentzialtasunengatik; bide batez, parte-hartzea sustatzea eta bazterkeria arintzea, gizarte-langintza diziplinaren beraren funtsezko helburuak baitira.

Kontzeptuari buruzko berrikuspen bibliografiko luze batetik abiatuta (Sarasa, 2023), komunitatea hurbileko pertsonen arteko eta ingurunearekiko harremanen elkarreraginetik eratorritako eraikuntza fisiko eta lurraldekoi gisa defini dezakegu, zeinean: alde batetik, existitzen diren desberdintasunak onartzeak eta sortzen den pertenezia-sentimenduak ekintza komuna (Sennett, 2005) errazten dute; eta, bestetik, prebentzio- eta babes-gune eta errealitateak sortzen dira, lurraldean elkarbizitzen diren pertsonentzat (Aguilar Idáñez, 2021).

Orain, komunitatearen definizioa eta kontzeptuak gizarte-langintzan jarduteko duen garrantziaren hurbilketa horretatik harago, gizarte-langintza komunitarioan sakondu beharrean gaude, lan honen helburuaren mesedean; hortaz, artikulu hau gidatuko duten galderak hauek izango dira: zeintzuk dira gizarte-langintza komunitarioaren oinarri teorikoak? eta estrategia praktikokoak? Eta, garrantzitsuena, oinarri eta estrategia horien adibiderik aurkitzen al dugu hurbileko esperientzia komunitarioetan?

Horrela, lan honen erronka nagusia teoriaren eta praktikaren arteko loturak bilatzea da. Horretarako, eta planteatutako gai nagusiei erantzuteko, bi esperientzia teoriko-praktiko izango ditugu oinarritzat: alde batetik, egileak berak duen lan-esperientzia eta honetan oinarritutako bere doktorego-tesiaren

esparruan egindako kontzeptuari buruzko berrikuspen bibliografikoa (Sarasa, 2023); eta bestetik, RETSASO proiektu europarraren markoan garatutako landa-lana.

Red Transfronteriza y Social (RETSASO) proiektua 2020tik 2022ra kudeatutako ekintza internazionala izan zen, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) finantzatuta. Perpignan Via Domitiako Unibertsitateak (Frantzia) gidatuta, beste zazpi erakunderen parte-hartzearekin garatu zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) barne¹.

Proiektuaren helburu nagusia, Espainia eta Frantziako mugaren bi aldeetan lanbide-heziketaren, unibertsitate-prestakuntzaren eta esku-hartze sanitario eta sozialaren eremuko ikerketaren arteko loturak sendotzea izan zen. Esparru honetan NUP-aren enkargu zehatza transferentzia eta irakaskuntza materialak sortzea izan zen, hurbileko esperientzia komunitarioak ezagutzuz.


Betebehar horretarako, NUPeko Soziologia eta Gizarte-lan Saileko GIAS ikerketa taldeak gizarte-arloko hurbileko ekimen komunitarioak identifikatu zituen. Eta, esperientzia esanguratsuenak hautatu ondoren, elkarrizketak egin zitzaizkien esperientzia horien arduradunei; hauetako batzuk grabatu ziren (RETSASO UPNA, 2022a eta 2022b) Gizarte-langintza Graduan irakaskuntza-material gisa erabili ahal izateko.

Aurrerago ikusiko dugunez, esperientzia horien antolamendu egiturak askotarikoak dira, bai eta helburuak eta haietatik arreta eta laguntza jasotzen duten biztanleak ere. Zehazki, hauek izan ziren ikerketa prozesuan hautatuko lau esperientzia komunitarioak:

1. Buztintxuri auzoko Buztintxureando Txuri elkartearen Partaidetza Soziokomunitarioko Programa.
2. Txantrea auzoko Auzozaintza Sarea eta Jakitokijanaritegi komunitarioa proiektua.
3. Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarea.
4. Mejorana osasun mental elkarte.

Lau esperientzia hauek Iruñean kokatzen dira, aipatutako auzoetan; hortaz, hurbileko esperientziak dira, "0 km-koak", modu batez. Esperientzia hauek jakintza tekniko eta herrikoi batzuetatik eraikita daude, eta horietan parte hartzen duten eragileen erantzunkidetasuna da haien arrakastaren motorra. Aberastasun hori, batzuetan (eta agian nahi gabe), alboratu (eta ikusezin bihurtu) egiten dugu, fokua urrun jartzen dugunean, gizarte-lan komunitarioko kanpoko esperientzia egokien bila, baina oraingoan ez, oraingoan "hemen" begiratuko dugu.

¹ <https://www.retsaso.eu>.



Iturria: egileak landua

Esan bezala, artikulu honen helburu nagusia ekarpen teorikoak esperientzia praktikoekin lotzea da, hurbilak ditugun aipatutako esperientziekin, hain zuzen ere; eta, noski, teoria eta praktikaren arteko identifikatutako lotura horiek aurkeztea. Horretarako, lana bi ataletan aurkezten da. Lehenengoan, gizarte-langintza komunitarioaren oinarriekin lotutako ekarpen teorikoak berrikusten dira, eta hauen ezaugarri garrantzitsuenen laburpena aurkezten da, dekalogo gisa; izan ere, komeni da komunitate ekintzari eusten dioten zimendu teoriko partekatuak kontuan izatea, "benetako" esperientzietara hurbildu aurretik. Oinarri teoriko horien azterketatik abiatuta, gizarte-langintza komunitarioaren lau estrategia aurkeztuko ditugu. Ildo horretan, bigarren atalean, estrategia horiek ikusgai jarriko dira aztertutako lau esperientzietan eta horretarako, identifikatutako lau estrategietako bakoitzak RETSASO proiektuaren esparruan landutako esperientzia komunitario batekin lotuko da.

2. Gizarte-langintza komunitarioaren kontuan izan behar ditugun hainbat oinarri teoriko: gure dekalogo partikularra

Esan bezala, azterketa sakon baten ondorio diren gizarte-langintza komunitarioaren oinarri teorikoak aurkezten dira hurrengo lerroetan, labur eta bederatzi arauko dekalogo moduan. Izan ere, ereduaren bederatzi oinarri teoriko identifika ditzakegu, aurrerago aztertuko ditugun ekintza-estragiei eusten dieten zutabe gisa:

1. Aniztasunetik eraikitzea

Gizarte-langintza komunitarioaren xedea komunitatea da, kolektibitatea bere osotasunean, eta helburua (azkena) horren ongizatea (Lillo eta Roselló, 2004). Baina helburu hori, ulermenean eta gauzatzean, partekatu behar da komunitateko kideekin, betiere desberdintasun egoera batetik jardunez eta, zentzu

horretan, Sennett-en (2005: 151-152) "gu desberdin"-aren ideia berreskura dezakegu:

Badirudi gatazkaz betetako komunitate mota hori dela, hain zuzen ere, erregimen malgu bat inspiratu beharko lukeena. Denboraren hausturak eta horrek dakarren gizarte-antolamendu ezak, jendea behartu beharko luke bere desberdintasunak artikulatzera eta negoziatzera, talde-lanaren azaleko lankidetzara eragitera baino gehiago².

Horrela, adituak "gu desberdin" batean oinarritutako komunitateak eraikitzeke beharraz hitz egiten du: "gu" bat gatazkak partekatzean eta ezberdintasunak ulertzean oinarritzen dena, elkarrekiko zaintzaren alde eginez; eta konpromisotik, konfiantzatik eta erantzukizun partekatutik eraikitzen den "gu" bat.

Eta hori izango litzateke dekalogoaren lehen "araua", hau da, komunitatea desberdintasunak artikulatzen eta onartzen dituen errealitate gisa hartzen hastea (Luhmann, 1998).

2. Pertsonen eskubideak sustatu eta bermatzea

Gizarte-langintzaren Kode Deontologikoan (2012) ezarritakoaren arabera, gizarte-langintza komunitarioaren esparruan egiten diren esku-hartzeen praxia giza eskubideen errespetuaren alde eraiki behar da, betiere hurrengo pisuko adierazpen eta hitzarmenak kontuan hartuz: Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1945), Oinarritzko Eskubideak eta Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena (1950), Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna (2007) eta Espainiako Konstituzioa (1978).

Gainera, gizarte-langintza komunitarioak, zaugarritasun-egoeran edota babes txikiagoko egoeran dagoen komunitateko biztanleria bereziki

² Artikuluaren itzulpen guztiak egileak itzuliak dira.

kontuan hartu behar du. Hala, gizarte-langintza komunitarioak, gizarte-langintza diziplinaren berezko eta jatorrizko eremutat hartuta, honako konpromiso hauek ere hartu behar ditu:

Pertsona, talde edo komunitate orori aukeraberdintasuna, baliabideetarako sarbidea eta beren beharizanak betetzeko laguntza bermatzea; bereziki, zaugarritasun egoeran daudenei edo gizarte-desabantailako egoera espezifikoren batean daudenei. (Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia, 2012: 11).

3. Ikuspegi orokorreko tokiko garapena bultzatzea

Gure dekalogo partikularren lehenengo atalean adierazi dugun bezala, gizarte-langintza komunitarioaren jarduera-esparrua komunitatea da. Baina garrantzitsutzat, edo ezinbestekotzat, hobe, hartu behar da hurrengo ideia: komunitateko eragile guztien inplikaziotik eta partaidetzatik eraikitzen da ekintza komunitarioa (Gimeno Monterde, 2022; Lillo eta Roselló, 2004) eta lurralde zehatz batean ematen da ekintza hori.

Baina, lurralde-ekintzaren errealitate horretan, erreferentzia-esparruak testuinguru globala ere izan behar du kontuan; eta, ezinbestekoa den tokiko garapen hori helburutzat hartuta, beharrezkoa da, modu berean, ekintzaren ikuspegi zabala (globala) izatea. Honen harira, Murga-Menoyo eta Novo (2017) *glocalidad* kontzeptua erabiltzen dute, prozesu komunitarioen espazio-ikuspegia zabaltzeko eta, horrela, aniztasuna eta interakzioarako aukera handiagoak izateko. Kasu honetan eta "zuhaitzak ez diezazula eragotzi basoa ikustea" esaera ospetsua gogoan izanda, gizarte-langintza komunitarioaren ekintzan, zuhaitza eta basoa hartu beharko lirake kontuan.

4. Bulegokoa baino gehiago, lokatzezko esku-hartzea

León Solarte eta Jaime Martínez- ek (2020) esparru mediku-klinikoan erabiltzen duten "mantaletatik botetara" metafora eredu bezala hartuz, dekalogo honetan "lokatzezkoa, bulegokoa baino gehiago" leloa proposa dezakegu gizarte-langintza komunitarioaren esparruan.

Azken hamarkadetako errealitate sozioekonomikoak areagotu egin du gizarte-zerbitzuen izaera asistentzialista eta "bulego-izaera", esku-hartze komunitarioa alde batera utzita (Fernández García eta López Peláez, 2008). Baina ereduaren sorospen-logika horietatik urrundu behar da eta "behetik", eguneroko bizitzan ehuntzen, eraikitzen jakin behar du, alegia, Villasantek (2015) komentatzen dituen "mangladi" horietatik jarduten.

Hala ere, horrek ez du esan nahi asistentzia-esparruaren eta komunitate-arloaren arteko lehia dagoenik (edo egon behar denik); gizarte-langintza

komunitarioak ez ditu ordezkatzen asistentzia izaerako esku-hartzeak, horiek ere nahitaez bateragarriak baitira desberdintasun- edo zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko, bai eta, modu batez, kolektiboa dena eraldatzeko zubi izateko.

5. Parekotasunean parte-hartzea

Gizarte-langintza komunitarioko prozesuek komunitateko kideek bizitza publikoan eta kolektiboan parte har dezaten sustatu behar dute (Funes Rivas, 1994; Gimeno Monterde, 2022). Horretarako, alde batetik, herritar guztiek dinamika publikoetan eta kolektiboetan parte hartzeko bultzatzea egin behar dute; eta, bestetik, biztanleri talde jakin batzuek, eta hainbat gizarte-arrazoierengatik, baldintza berberetan parte hartzeko dituzten zailtasunak eta eragozpenak arindu behar dituzte.

Ziur asko, gizarte-langintza komunitarioko prozesuetan parte-hartzea sustatzeko ezinbesteko tresnetako bat informazioa ondo erabiltzea izango da. Horrela, bada, informazioa komunitateko eragileekin partekatu behar da, prozesu parte-hartzaile komunitarioetan sartzeko gonbita egin dezan edo berriak sortzeko aukera eman dezan (Marchioni, 2014; Rubio eta Puig, 2015); eta gainera, esan genezake, informazio hori hartzaileei egokitu behar zaiela, bai funtsean, bai forman.

6. Prozesu jasangarriak sustatzea

Prozesu komunitarioek, gainera, espazio-denboran sostengatzeko moduko prozesu iraunkorrak izan behar dira, epe ertain eta luzerako proiektioarekin, eta ez dira soilik proiektu jakin baten edo esku-hartze puntual baten behin-behinekotasunera harpidetuta egon behar.

Honen ildora, prozesu komunitarioetan murgilduta dauden profesionalak ezin dute iritsi/desagertu dinamikarekin funtzionatu; aitzitik, egotearen eta irautearen ideiarekin esku hartu beharko lukete. Hortaz, garrantzi berezia hartzen du topaketa- eta partaidetza-guneak izateak, beharrezko egonkortasun hori ahalbidetzeko, ekintza komunitarioaren antolamendu jasangarri eta iraunkorren alde.

7. Talde tekniko profesionalizatuaren beharra

Gizarte-langintza komunitarioko prozesuetan garrantzitsutzat jo dezakegu "bulegoko" talde tekniko bat eratzea, baina ezinbestekotzat hartu behar dugu tokian tokikoa izatea, ekintza lurraldearekiko hurbiltasunetik hainbat eginkizun betetzeko: guztion parte-hartzea defendatzeko, harreman (eta erlazio) prozesuak sortu eta zaintzeko, beharrezko informazioa gizarteratzeko, entitate publikoen eta komunitatearen eragileen parte-hartzearen eragozpenak arintzeko eta esku-hartze komunitarioko prozesuen iraunkortasuna zaintzeko, besteak beste.

Horren harira, gizarte-langintzako profesionalak beren lanbidea gauzatzeko erantzukizuna dute, pertsonak, taldeak eta komunitateak ahalduz sustatzeko dituzten indarguneak gertutasunetik identifikatzeko eta garatzeko (Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia, 2012). Orain, eta aurreko lerroetan esan dugun bezala, talde komunitarioaren profesionaltasuna ez da profesionalizazioaren sinonimoa; hau da, teknikari profesional boluntarioaren talde bat egon daiteke, ez nahitaz ordaindua.

Hori bai, talde teknikoak beti ahalduz rol batetik lan egin behar du, inoiz ez inposaketa edo manipulazio posizio batetik, Marchioni-ri (2019a: 1m22s) jarraikiz: "Talde komunitarioaren lana, lan sokratikoa dela esan liteke. Talde komunitarioak ez du erantzunik ematen, komunitateari erantzuna aurkitzen laguntzen dio".

8. Borondate politikoa eta administrazio baliabideak izatea

Begi-bistakoa da prozesu eta dinamika horien jardura profesionalak (eta profesionalizatuak) laguntza politiko-administratiboa behar duela, prozesu eta dinamika horiek garatzen diren egitura instituzionalen eta boterearen beraren aldetik (Marchioni, 2014). Hala ere, borondate eta babes hori etengabe azaldu behar da parte hartzen duten eragileen berriak kritikoen baten aurrean, batzuetan interes alderdikoien eta ideologikoen zerbitzura dauden administrazio eta erakundearen kontrol sozialeko estrategia posibleak saihestu edo, behintzat, arintzeko.

Baina badira, noski, borondate politikoa eta administrazio-baliabide horietatik kanpo eraikitako gizarte-langintza komunitarioko esperientziak ere. Horietan, erabilitako baliabideak proiektua bultzatzen duten pertsonen eta errealitate komunitarioko beste eragile batzuen konpromisotik, elkartasunetik eta borondateetik lortzen dira.

9. komunitatearen oniritzia eta elkar-laguntza bultzatzea

Gizarte-langintza komunitarioko proiektu bat ezin da sostengatu eta jasagarria bilakatu komunitatearen parte diren pertsonen onespenez eta elkarlanik gabe (Lillo eta Roselló, 2004). Horrela, elkarrekiko laguntzak izugarritzko garrantzia hartzen du komunitatearen ekintzaren zentzuan bertan; are gehiago, beste eragile eta erakunde batzuek (hasiera batean, herritarren eskubideak eta ongizatea betetzen direla bermatu behar dutenek) "iristen ez direla" dirudienean. Horretaz, elkarrekiko babesaz eta talde/auzo/herri elkartasunaz, esku-hartzeko estrategietan ere hitz egingo dugu.

Honaino, gizarte-langintza komunitarioaren funtsezko oinarri gisa aurkeztu dugun "gure" bederatzia arauen dekalogo berezia; bederatzia arau horiek, jakina, RETSASO proiektutik aztertutako esperientzia komunitarioak betetzen dituzte. Orain, sarrerako atalean azaldu den bezala, esperientzia hauetan identifikatutako

ekintza-estrategiak aurkeztuko ditugu, horietako bakoitza lau esperientziatiko batean lur hartuz.

Hortaz, teoriaren eta praxiaren arteko gurutzaketa horretatik definitutako gizarte-langintza komunitarioaren estrategiak ditugu hurrengoak.

3. Gizarte-langintza komunitarioan ezinbestekoak diren estrategiak: Iruñeko instituzio, elkarte eta ekintzen kasua

Hasteko, esan dezakegu jarraian aurkezten diren estrategiek, komunitatearen eta honen parte diren pertsonen ahalmen parte-hartzaile, eraldatzaile eta erabakitzaileetan jartzen dutela arreta. Parte-hartze kolektibo eta eraldatzaile hori, gizarte-langintza komunitarioari dagokionez, korronte kritiko eta dialektikoko prozesu metodologikoetatik abiatuta gertatzen da, menderatze/askatze tentsio-prozesu batzuetan oinarrituta (Barreix eta Castillejos, 1985).

Hala ere, artikulua honen helburua ez da esku-hartze komunitarioaren prozesu metodologiko osoa definitzea (ikus beharko litzateke, gainera, prozesu hori definitzeko aukera bera dagoen); lan honen helburua, ordea, prozesu metodologiko global horren giltzarritzat jo ditzakegun esku-hartze estrategia batzuetara hurbiltzea da.

Horretarako eta esan bezala, estrategia adierazgarrienak eta aztertu nahi ditugun esperientzia praktikoekin identifika ditzakegunak aipatuko ditugu. Horrek ez du esan nahi esperientzia bakoitza lotutako strategiaren ekintza bakarretik interpretatu eta ulertu behar denik; izan ere, esperientzia guztiak identifikatutako lau strategiaren ekintzatik eta elkarrekin garatzen dira, nahiz eta horietako bakoitzean dagokion strategiari arreta handiagoa eman.

Horrela, hurrengo ataletan, lehenik eta behin, identifikatutako estrategia bakoitzaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira, ondoren, strategiarekin "lotzen" den esperientzia aurkezteko.

3.1. Lehenengo-estrategia: *management* gabeko parte-hartze eta sustapen komunitarioa

Kisnerman-en (1998: 69) arabera, sustapen komunitarioa trebakuntza demokratikoko prozesua da, zeinean pertsonak beren arazoak aztertzen dituzte, konponbideak bilatzen dituzte eta eragiten dieten erabakietan esku hartzen dute. Horrek guztiak hainbat onura dakarzikie: batetik, haien nolakotasunaren, ahalmenen eta aukeren kontzientzia garatzen du; eta bestetik, "beren garapen indibidual eta kolektiboaren erantzukizuna beren gain hartzea ahalbidetzen die".

Orain, komunitateko sustapenarena, estrategia eraldatzaile gisa, funtsezko bost elementu behar dituela dio Kisnerman-ek (1998): 1) laguntza ofiziala; 2) aholkularitza teknikoak; 3) baliabideen

eskuragarritasuna; 4) proiektuen antolaketa (oraingoan ez ezik, baita etorkizunean ere); eta 5) parte-hartzea. Komunitateak horiek izateko aukera duenean komunitate sustatua dela esan daiteke eta hau, egilearentzat, komunitate antolatua baino urrats (edo aurrerapauso) bat gehiago da.

Baina, sustapen-prozesu horretan, ez da akatsik gertatu behar eta horretarako kontuan izan behar da hauetako ohikoenak hauek izan daitezkeela: esku-hartzearen asistentzialismoan erortzea edo komunitatearen ahalmenak nahitaz sustapen prozesuen "kanpoko" eragileen interes eta eskaerei egokitzea (Marchioni, 2006).

Azkenengo hau ohiko egoera da, komunitateen erritmoak (sortzen diren harremanenak eta mugimendu eraldatzaileenak) motelagoak baitira dinamika komunitarioen erritmoak baino; izan ere, dinamika horiek, batzuetan, administrazio-egituretatik bideratzen dira botere eta interes politiko edo ekonomikoen mende. Kasu hauetan ager daitezke *management*-etik gidatutako prozesuak.

Hortaz, komunitatearen sustapenean, esku-hartze inbaditzailearen dinamikak baztertzeko joera egon behar da; alegia, helburu partekatutako ahalduntze komunitarioa sustatu behar da, eta ez soilik sustapen hori indartu nahi dutela dioten egiturek (erakunde eta administrazioek) baldintzatutako ahalduntzea. Gizarte-langintza komunitarioak, horrela, erasorik gabeko esku-hartzearen aldeko apustua egin behar du; hala ere, esku-hartze terminotik ihes egiten aldi berean, ekintza komunitarioa ez baita esku hartzeko ekintza bat (militarra edo kirurgikoa bezala), sustatzeko edota indartzeko ekintza bat baizik.

Beraz, sustapen-prozesu horrek errespetutsua izan behar da beti, bai errealitate komunitarioaren dinamikekin, denborekin eta abiadurekin, bai errealitate horretako barneko eragileen jakintza eta ezagutzekin ere.

Parte-hartzeari dagokionez, Gizarte-langileen Nazioarteko Federazioak berak, 2004. urtean, partaidetza sustatzea ezarri zuen lanbidearen jardunetik indartu beharreko lau dimentsioetako³ bat bezala, pertsona bakoitzaren errespeturako eta duintasunerako, eta pertsona horien ahalduntzearen alde. Honen harira, Gizarte-laneko Eskolen Nazioarteko Elkartearen Batzar Orokorrean (Dublinen 2018n egin zena) hurrengo hau adostu zen printzipio etiko orokor gisa: "Parte hartzeko eskubidea sustatzea: gizarte-langileek pertsonen autoestimua eta gaitasunak garatzeko lan egiten dute, eta haien bizitzetan eragina duten erabaki eta ekintzen alderdi guztietan erabateko parte-hartzea sustatzen dute" (Gizarte-langileen Nazioarteko Federazioa, 2018).

³ Beste hiru hauekin batera: autodeterminazioarekiko errespetua, pertsonen tratamendu integrala eta pertsonen eta komunitateen indarra identifikatzeko lan aktiboa (Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia, 2014).

lido honetan eta gure aldetik, aukera-parekotasunean parte-hartzea gizarte-langintza komunitarioaren oinarri gisa hitz egin dugun bezala, diziplina profesionalaren berezko estrategiatzat hartu behar dugu pertsonen partaidetza. Marchioni komentatzen duen modura, hau (parte-hartzea) baita "prozesuaren komunitarioen izarra" (Marchioni, 2004: 20). Baina parte-hartzea gizarte-egituraren beraren barruan helburu esanguratsuekin egituratutako prozesu gisa ulertu behar dugu (minimoki, bada ere).

Egitura partekatu hori lortzeko, beharrezkoa da, alde batetik, komunitateetatik sortzen diren ekimenekin sistema demokratiko bat eraikitzea eta, bestetik, komunitateetako pertsonen sormena sustatzen jakitea. Aurretik esandakoan oinarritutako estrategiaz hitz egiten jarraitzen dugu: inplikatzaila, kritikoa eta tokikoa dena, baina "goiko" interesen menpe "apaindu" gabe dagoena:

Parte-hartzean sortu nahi den "sinergia" ez da zatien batuketa soil, eguneroko bizitzan sortzen diren ekimenen biderketa baizik. Hau da, herri proposamenetatik eta proposamen komunitarioetatik ordezkaritza-sistemen agenda eraiki behar da. Eta ez itxaron behar botere ekonomiko eta mediatikoez bizitza antola diezaguten. (Villasante, 2006: 241)

Baina, parte hartu ahal izateko eta gure ustez, funtsezko hiru elementu behar dira: ezagutzea, nahi izatea eta posible izatea, alegia: parte-hartze prozesuari buruzko beharrezko informazioa izatea eta ulertzea, hartu beharreko konpromisorako borondatezkotasuna izatea (halakorik balego) eta parte hartzeko egitura erreala eta loteslea aurkitzea (noski, prozesuaren ezaugarrien eta informazioaren arabera).

Hala, funtsezkoa da partaidetza-prozesuak gizarte-langintza komunitarioaren berezko helbururako tresna gisa ulertzea, alegia, komunitatearen ongizatearen (edo "hobetzearen") aldeko gizarte-eraldaketarako tresna bezala. Alde batera utzi behar dira, batetik, parte-hartzea kontrol sozialeko egituren mendeko baliabide bezala ulertzen duten ekintzak, eta, bestetik, parte-hartzea instrumentalizatu eta aipatu dugun "lokatz" horretatik aldentzen duten dinamikak.

Horri dagokionez, ereduaren profesionalek erronka handia dute eskuartean: kokatzen jakitea eta orekaz jokatzeko, diziplinaren beraren helburu, etika eta printzipioekiko fideltasuna gordez eta komunitateen interesen alde lan eginez, nahiz eta interes hauek, askotan, administrazio eta erakundearen interes estrukturalen aurkakoak izan: "Delegatuak, edo kudeatzaileak [eremu komunitarioko profesionalak barne], kolektiboki eraikitako erabakien mandatari izatea eta erabaki horien interpretazio apatatsurik ez egitea" (Villasante, 2006: 241).

3.1.1. Partaidetza Soziokomunitarioako Programa, Buztintxureando Txuri haur- eta gazte-elkartea

Buztintxureando Txuri haur- eta gazteelkartea 2013an sortu zen, Buztintxuri auzoko (Iruñea) haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko helburu nagusiarekin; eskubideen defentsa hau, batez ere, haur eta nerabeen (eta haien familien) parte-hartze komunitarioaren bitartez bermatu eta eraikitzen, aisialdiko jardueretan eta topagune ez-formaletan. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta hainbat ekimen garatzen ditu talde tekniko batek lagundutako boluntarioen sare zabal bati esker.

Buztintxureando Txuri elkarteak etengabe egiten eta eguneratzen ditu Buztintxuri auzora bideratutako ekimenak, programak eta proiektuak, lurraldearen beraren eskaera eta beharretara egokituz eta auzotarrek antolaketan eta garapenean duten eginkizun aktiboa sustatuz.

Komunitatearen (auzoa, kasu honetan) sustapenaren erronka elkarteak garatzen dituen ekintzen multzoan agertzen bada ere, dauden proiektuen artean, Partaidetza Sozio-komunitarioako Programak haur eta gazteen komunitatearen sustapena azpimarratzen du, baina familiak eta bizilagunen ongizatean giltzarri diren auzoko gainerako eragileak inplikatzeko dituen ikuspegi holistikoa batetik. Programa hau 2014etik garatzen da, gaur egun, Nafar Gobernuarekin lankidetzan.

Proiektu eta jarduera desberdinak garatzean, sustapen komunitarioa da programa osoaren bilakaera antolatu eta zentzua ematen duen oinarria, eta eragileek programan parte-hartzea ezinbestekoa da komunitatearen beraren beharretara eta eskaeretara egokitutako garapena ziurtatzeko:

Guretat, komunitatearen sustapena prozesu komunitarioetan oinarritzen da. Baina errespetuz egin behar da hau, jakinda bizilagunak direla eritimoa eta etorkizuna markatu behar dutenak. Promozioa inbaditu gabe auzoan egotea da, baina prozesuak birbideratzen beharrezkoa denean; hauetatik norbait kanpo uzten denean, adibidez. Argi dago zerbait sustatzeko hemen egon behar duzula, jendeak ulertu behar du proiektua komunitatearen eta auzoaren parte dela; eta, horretarako, proiektua elkarrekin eraiki behar da, bai edo bai. (Buztintxureando Txuriko teknikaria, gizarte-langilea)

Inplikaturako pertsonen erabateko protagonismoan eta kudeaketaren erantzukidetasunean oinarritutako parte-hartzea bultzatzen dute elkartetik. Horregatik eta haur eta gazteen elkarte den heinean, parte-hartzeko aukera eta tresna hauen errealitate eta gaitasunei egokitzen dituzte:

Beti galdetu didate, hau da, beti parte hartu dut nolabait. Txikitan, 9 urterekin uste dut, auzoko mapa bat egin genuen eta bertan munstroak non uste genuen zeudela adierazi genuen. Urte

batzuk geroago ulertu nuen horrek balio izan zuela haurrentzako seguruen ez ziren auzoko lekuak aurkitzeko, beldur gehien ematen zuten lekuak aurkitzeko. Orain desberdina da... Orain zuzenean parte hartzen dut gauza garrantzitsuak erabakitzen ditugun batzarretan... Urtero bi edo hiru egiten ditugu. Hamabost egunean behin biltzen den batzarreara ere joan ninteke, baina oraingoz ez dut hainbeste erantzukizunetan sartu nahi. (Buztintxureando Txuriko 14 urteko partaidea)

Kalitatezko partaidetza bermatzeko, elkartearen bi gai oso kontuan hartzen dituzte: lehenengoa, pertsona guztien parte-hartzea guztiz borondatezkoa izan behar dela pentsatzea, bai familia eta adingabeena, bai boluntarioena ere. Eta, bigarrena, parte-hartze hori "benetakoa" dela ziurtatu behar dela, batez ere haur eta nerabeekin, horiek baitira, askotan, "gezurrezko" partaidetza egoerak jasaten dituztenak; "benetako" partaidetza hori bermatzeko, Roger Hart-en (1993) partaidetza eskailera erabiltzen dute:

Haurren partaidetzaren Hart-eskaileran, normalean, laugarren-, bosgarren- eta seigarren- eskaloietako partaidetzan mugitzen gara: esleituta baina informatuta [4. maila], kontsultatuta eta informatuta [5. maila] eta haurrek hasi gabekoa baina haiekin partekatuta dagoen parte-hartzea [6. maila]. Jakina, nerabe eta helduekiko parte-hartze prozesuak eskaileraren maila altuenetan mugitzen dira [7.-8. mailak], hor bakarrik laguntzen dugu. Argi dagoena da dekorazio-partaidetzetatik [1. maila], manipulatuetatik [2. maila] eta sinbolikoetatik [3. maila] ihes egiten dugula. Zaila da parte-hartzea eta horretarako gune osasuntsuak aurkitzea, baina lehen aipatzen nuen komunitate-sustapenaren baldintzarik gabeko baldintza da hau. (Buztintxureando Txuriko teknikaria, gizarte-hezitzailea)

Azken urteotan, elkarteak 600 haur eta nerabe baino gehiagoren parte-hartzea izan du urtero, eta 50 boluntario baino gehiagoren laguntza izan du (erantzukizun-maila desberdinekin, noski), gehienak auzoko gazteak. Guzti hauen "benetako" partaidetza bermatzea eta auzoaren (komunitatearen) sustapena indartzen jarraitzea dira elkarrean etorkizuneko helburu nagusiak.

3.2. Bigarren-estrategia: elkarbizitza, elkarlaguntza eta auzo-babesa

Komunitate sustapeneko eta partaidetzako prozesuetan, bizikidetzatik abiatutako harreman-testuinguruak beharrezkoak dira, hauetan eta hauetatik elkar zaintzeko eta elkarri laguntzeko. Eta testuinguru hauetan, gizarte-langintza komunitarioaren zeregina ezinbestekotzat har dezakegu.

Horrela, harremanek bizikidetzak sortzen duten neurrian eta harreman horietan fenomeno komunitarioa eraikitzen den heinean, laguntza,

presentzia, "hor egotea" funtsezkoa da. Bolivarren ustez "funtsezkoa da kapital soziala eraikitzearen aldeko apustua, komunitatearekin sareak eta harremanak ezarri" (2006, García-Pérez eta Mendían aipaturik, 2015: 44) eta horretarako, bai ala bai, laguntza eta akonpainamendu-dinamikak eta bizikidetzaren errealitate eta -guneak eman behar dira.

Baina laguntzako eta bizikidetzako errealitate horiek elkarri laguntzeko estrategiak behar dituzte, korrante alternatibo batean kokatuak, aldarrikapen darwinisten (Darwin, 1982) eta propaganda kapitalisten banakako borrokaren baieztapenen aurrean. Honen harira, elkarrekiko laguntza biziraupen komunerako indarrak batzean datza, eta bere garrantzia gizakiaren existentzia bera bezain zaharra da:

Horixe da sastraka, baso, ibai eta ozeanoetatik guregana iristen den kontsigna. "Beraz, batu zaitzete! Praktikatu elkar laguntza! Biderik justuena da segurtasun maximoa bermatzeko, bai bakoitzarentzat, bai guztientzat, oro har; bermerik onena da existentziarako eta aurrerapen fisiko, intelektual eta moralerako". Hona hemen naturak irakasten diguna, eta bere ahots hori beren klaseetan maila gorena lortu zuten animalia guztiak entzun zuten. Naturaren ordena horri berari men egin zion jatorrizko gizakiak, eta horregatik bakarrik lortu zuen orain duen posizioa (Kropotkin, 1989: 73).

Gaur egun, elkarrekiko laguntzak eskaera eta behar partikularrak asetzeko balio du (nahiz eta komunak izan), jakinda askotan sistema nagusiek ezin dutela/nahi dutela hauei aurre egin. Hala, azken urteotan, babesgabetasun- edo zaurgarritasun-egoeren aurrean defendatzeko elkarrekiko laguntza eraikitako hainbat esperientzia aurki ditzakegu, hala nola: 2008ko krisi sozioekonomikoaren ondorioei aurre egiteko Espainiako Estatuan zehar eraturako etxegabeteen aurkako plataformak, edo COVID-19ak sortutako munduko pandemiaren ondorioak arintzeko sortu ziren auzokideen arteko laguntza-sare berrienak. Azken hauek, 2020ko martxotik aurrera, bizilagunen premiei erantzuteko elkarrekiko laguntzaren "txerto" bihurtu ziren (Nel'lo *et al.*, 2022).

Elkartasun komunitarioa (eta, beraz, bizilagunen artekoa ere) elkarrekiko laguntzaren oinarritzat har dezakegu. Elkartasun hori urrundu egin behar da azken hamarkadetan (eta mendeetan) gizarte-langintza profesionalizatuak izan duen karitatezko ikuspegitik (Barahona, 2016); elkartasun komunitario hori pertsona "arrunten" arteko elkarrenginetik eta aldarrikapenetik eraikitzen da, sektoreko profesionalak gidatutako ekintza horietatik urrunduz askotan. Horrela, elkarrekiko laguntzak "berdinen" arteko ekintza, konpromiso komuna eta helburu partekatutako behar ditu.

Spade-ri jarraikiz (2022), elkarrekiko laguntzaren ekintzek funtsezko hiru ezaugarri dituzte:

1. Biziraupena asetzeko eta hura mehatxatzen duten desberdintasunen arrazoia kolektiboki ulertzeko funtzionatzen dute.

2. Etengabeko elkartasun lotura eta erlazioak sortzen dituzte hainbat bizi-esperientzia dituzten pertsonen artean.
3. Partaidetza dosi handiak behar dituzte prozesu autonomoak eta kolektiboak lortzeko.

Ikuspegi horretatik, "gizarte-zerbitzuen espezifikotasunaren ideiatik aldentzen gara, gizarte-langile bat, lizentzia duen terapeuta bat, abokatu bat edo gauzak egiteko titulu aurreratua duen beste pertsonaren bat behar dugula ziurtatzen baitu" (Spade, 2022: 26).

Aitzitik, kontuan hartu behar dugu prozesu (edo une) jakin batzuetan interesgarria izan daitekeela laguntza tekniko-komunitario bat izatea, sinergiak aurkitzeko balioko duena, herri/auzo eta erakunde/administrazio erantzunkidetasunetik abiatuta betiere. Laguntza tekniko honek bi helburu izango lituzke: alde batetik, lehendik dauden egiturak ahalduntzea, eta bestetik, egitura berriak sustatzea, prozesu parte-hartzaile eta eraldatzaileetatik abiatuta.

Ahalduntzea definitzen ari garen elkarrekiko laguntzatik gertatzen da, dela komunitateko bertako eragileetatik, dela profil teknikoetatik; ahalduntzea ez da sustatzen noizbehinkako asistentzialismotik, ezta bestearen infantilizaziotik edota paternalismo propiotik ere. Ildo horretan, Jarpa-Arriagadak (2020) dioen bezala, pertsonaren infantilizazioan edo mendekotasunean oinarritzen diren jarduerak profesional asistentzialak errepikatzea besterik egiten ez duten praktikak alde batera utzi behar dira; izan ere, hauek, komunitatearen menderatze egoerak sustatu eta mantentzen dituzte.

Komunikabideek agerian utzi zuten elkarri laguntzarako auzo eta herrietako sareak asko ugaritu zirela 2020ko martxotik aurrera, hau da, Espainiako Estatuan alarma-egoera deklaratu eta hurrengo hilabeteetan (Bernues eta Ibarra, 2020); hortaz, hainbat ekimen eta auzo/herri elkartasun talde erregistratu ziren lurraldean zehar. Inplikaturako sareen eta pertsonen guztizko kopurua kalkulatzeko zaila bada ere (ezinezkoa da auzokoei eta komunitateei laguntzeko ekintza guztiak zenbatzea), Nel'lo eta beste batzuek (2022) elkarri laguntzeko mila ekimen baino gehiago zenbatu zituzten.

Blanco eta beste batzuen arabera (2022), hiru forma nagusi hartu zituzten talde hauek: 1) elkarri laguntzeko sareak, osasun-krisiaren aurrean erantzun gisa eraikiak; 2) bizilagunen eta familien elkarrekikotasuneko ekimenak, eguneroko beharrei erantzuteko sortuak; eta 3) kultura- eta hezkuntza-arloko ekimenak, espazio birtualean presentzia nabarmena izan zutenak.

Horrela, ehundaka elkartek, kolektibok eta auzokide boluntariok osaturako elkarri laguntzeko sareek elikagaien, zerbitzuen, zainketen, arreta emozionalen eta kultura-, hezkuntza- eta kirol-ekimenen eskaera gero eta handiagoei erantzun zieten (eta hala egiten jarraitzen dute).

3.2.1. Txantreako Auzozaintza Sarea eta Jakitoki, auzoko janaritegi komunitarioa

Auzozaintza auzo-sarea COVID-19 pandemiaren hasieran hasi zen lanean, Iruñeko Txantrea auzoan konfinamenduaren lehen asteetan, krisi soziosanitario hasiberriak sortzen zituen zailtasun eta arazoei irtenbide bateratuak bilatu zituzten hainbat pertsona eta kolektiboren ekimenaren ondorioz.

Sareak jarduera-esparru desberdinak baina etengabeak izan zituen: lehen asteetan, eta dozenaka bizilagun boluntarioen ekintza eta konpromisotik abiatuta, adineko pertsonen laguntza eman zitzairen, etxeko lanetan laguntza eskaini zen, adingabeentzako eta haien familientzako aisialdirako alternatibak sortu ziren eta elikagaiak banatzeko sistema bat sortu zen; eta, aurrerago (auzoko ikastetxeetan eskolak berriz martxan jarri zirenean), ikasleei materialak banatzeko ere antolatuta zen sarea.

Gainera, talde bat zegoen gaiaren ikuspegi eta berrikuspen politiko pixka bat egiten, hau da, kontua ez da soilik egoeraren ondorioz sor daitezkeen problematikak konpontzea, baizik eta arazoa sortzen duten kausa sistemikoak identifikatzea. (RETSASO UPNA, 2022a, 2m47s)

Konfinamenduaren amaierak Auzozaintza sarearen "amaiera" markatu zuen. Normaltasunera itzultzeak arazoak birmoldatzea ekarri zuen, eta auzotarrak eta kolektiboak elkartu egin ziren berriro, lehenagoko errealitatearekin lan egiteaz gain (aurretik zituzten ekimenak berreskuratuz), egoera berri horiei aurre egiteko: "Pandemiaren ondorioz sortzen ari ziren behar berriak ikusi genituen, eta beste hainbeste, aspaldikoak zirenak, baina haiek konpontzeko moduak aldatu zituztenak" (RETSASO UPNA, 2022a: 4m15s).

Sarean inplikaturako eragileek positiboki baloratu zuten sarearen esperientzia, sortutako erantzun bateratuaren potentziala ulertuta; izan ere, osasun- eta gizarte-krisiak eguneratu egin zituen Txantrea auzoko pertsonen diagnostikoa, haien eskaerak eta beharrak, eta estrategia komunitarioen berregituraketa bultzatu zuen horiei aurre egiteko: "Auzo osorako oso esperientzia positibotzat jo zen, auzoko kolektibo eta pertsona guztiek planteatu ziren arazo horiei erantzun bateratua emateko modu bat izan baitzen, etorkizunean aztertzen jarraitzeko bide bat izan zitekeena" (RETSASO UPNA, 2022a: 3m04s). Horietako batzuk oraindik ere badaude, Jakitoki proiektua esaterako.

Horrela, Jakitoki janaritegi komunitarioaren proiektuak konfinamendu hilabeteetako erantzun kolektiboko dinamika horiek gainditu zituen. Izan ere, Auzozaintza-saretik egiten ziren lehen elikagai banaketetan, inplikaturako pertsonak ohartarazi zuten osasun-krisiak eta gizarte-krisiak eragindako elikadura beharretatik haratago zeudela:

Osasun larrialdiko testuinguru horretan janaria eskuratzeko aukerarik ez izateaz gain, janaria

eskuratzeko aukerarik ez duen jendea zegoela identifikatu zen. Orduan, auzoko kolektibo eta pertsona desberdinekin azterketa bat egitea erabaki zen, eta auzoan egoera horretan mila pertsona zeudela kalkulatu zen, janaria zuzenean eskuratzeko aukerarik ez zutenak. Baina ez bakarrik pandemiaren testuinguru horretan, baizik eta erregulartasunez. (RETSASO UPNA, 2022a: 4m51s)

Horrela, Jakitoki izeneko proiektu autogestionatua sortu zen, 2020ko urrian, hurrengo helburu nagusi hauekin:

- Aniztasuneko eta elkarrekiko laguntzako sare sozial bat sortzen eta mantentzen laguntzea, ekintza komunitario eta solidariotik abiatuta.
- Desberdintasun ekonomiko eta sozial jakin batzuk eragiten dituzten egiturazko kausak detektatzea eta salatzea.
- Elikagaien eskuragarritasun unibertsalerako "borroka-komunitate" kontziente bat sortzea, elikagaia oinarritzko eskubidetzat hartuta.
- Partaidetza integral eta horizontalerako eskubidea bermatzea, auzokide eta gizarte-kolektibo jakin batzuei eskubide hori erabiltzea eragozten dieten oztopoak identifikatuz eta saihestuz.

Jakitoki proiektua adibide bat da, elkarrekiko laguntzaren eta laguntza kolektiboaren interakzioetatik abiatuta, komunitateko erakunde batek, desberdintasun ekonomiko eta sozial jakin batzuk salatzeaz eta ikusarazteaz gain, eskubide jakin batzuk berma ditzakeela erakusten duena. Elkartasunetik, elkarrekiko laguntzatik eta antolakuntzatik jarduten betiere:

Elkartasuna, ekartzen dugun atomizazio eta individualismo hori eta erruduntasun hori hausteko, elkarri laguntzeko sareak sortuz.

Elkarrekiko laguntza, auzoetan daudelako borrokarako subjektuak, eta aldarrikapenak hor daudelako orain eta gero eta gehiago.

Eta antolatzeko... esan ohi da: "bakarrik ezin duzu, baina zure jendearekin, bai". Bada, logika horietatik eraikitzen saiatzen gara. (RETSASO UPNA, 2022a: 7m29s)

3.3. Hirugarren-estrategia: sare-lana, lurraldearen gaineko konexioak

Gizarte-langintza komunitarioarako sareko lana, komunitatearen lanerako esparru eta espazioak eraikitzen duen metodologia da (Lillo eta Roselló, 2004). Metodologia honek, egungo gizarte-zatiketako egoerei aurre egitea izan behar du helburu; baina, honetarako, talde sozialak homogeneousatzearen logika eta helburutik urrundu behar da, interesak eta kezak dituzten talde ezberdinen arteko loturak egituratzen lagunduz (Castillo Trigo, 2009).

Agian, aurkezten diren lau estrategietatik, aztertutako esperientziek partekatzen dituztenetik, sareko lana izango da sendoena eta, modu batean, onartuena; alegia, oso zabaldua dago sare-lanaren erabilera koordinaziorako lan-metodologia gisa, gizarte-langintza komunitarioaren esku-hartzeetan ez ezik, beste ekintza eta prozesu askotan. Dena den, zilegi da estrategia honi lerro batzuk eskaintzea.

Beharbada, tokiko lurralde-eremua izango da arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ituna ahalbidetuko duena ongizate-arloan. Horrela, tokiko lurraldeak gizarte-mugimenduen eta tokiko gizarte-politikaren arteko artikulazio hobea ahalbidetzen du (Aguilar Idáñez, 2013), baina, horretarako, beharrezkoa da udalerrietan elkarezagutza eta elkarlanerako prozesuak bultzatzea.

Hortaz eta aurreko puntuetan defendatu den bezala, gizarte-langintza komunitariotik laguntzen diren komunitate-sustapeneko prozesuek, komunitatean, zuzenean edo zeharka, lan egiten duten erakundeen eta kolektiboaren arteko elkarte- eta koordinazio-egoerak eta espazioak ezagutu behar dituzte, eta sustatu ahal izan behar dituzte. Eta horretarako:

1. Komunitateko eragileen topaketa, hausnarketa eta esku-hartzeen kohesioa sustatu behar dute.
2. Komunitatearen errealitatea eta tokiko erritmoak errespetatzen dituzten metodologia inklusiboak erabili behar dituzte.
3. Talde eta kolektibo komunitarioen eta erakunde publikoen jarduerak elkarri lotuz, inplikaturako eragileen egungo eta "ezkutuko" beharrezkoak heldzea erraztu behar dute.

Hala, sareko lan-estrategia, horizontaltasun-harreman komunitario batetik erabili behar da, parte hartzen duen eragile bakoitzaren interesak eta autonomia zainduz, horien artean loturak sortuz. Horrela, alde batetik, ezagutza eta hausnarketa partekatutatik eraikitako diagnostiko komun bat gerta daiteke; eta bestetik, ekintza partekatu, holistiko eta integral bat ahalbide daiteke.

Gizarte-langintza komunitarioak, komunitatearen ikuspegia erakunde-ikuspuntuekin lotu behar du, koordinazio edo lankidetzara beharrezkoa bada, noski; eta betiere komunitatea bere garapen-prozesuaren jabetzat eta esku-hartzerako ezinbestekotzat jotzen: "Hiritako bizilagunak elkarri laguntzeko eta auzo-baliabideetatik eskubideak garatzeko harreman-proiektuen inguruan antolatzen dira nagusiki, modu autonomoan edo udal-arloekin eta beste erakunde edo entitate batzuekin lankidetzan" (Jáuregi, 2017: 7).

Lotura hori lurraldearen bertan egin behar da, aipatu dugun hurbiltasun horretatik. Eta, era berean, lotura horretan sortzen diren konexioak deszentralizazio-ekintzak behar dituzte; alegia, babes komunitarioko baliabideen kudeaketan autonomia irabazteko, baliabide horiek inguruaren berezko berezitasunetara egokituak egon behar dira.

Gizarte-langintza komunitariotik egiten den ekintza, beraz, tokiko ekintza izan behar da; eta hau Castells-i jarraikiz (1982), "kudeaketa politikorako tresna berri bat da, Estatua eta gizarte zibila estuki lotzen dituen mekanismo instituzional bat, tokiko gobernu autonomoen, deszentralizazio administratiboaren eta herritarren parte-hartzearen bitartez" (Aguilar Idáñez, 2013: 218) lortzen dena.

Baina, eta hemen gaiaren koxka, tokikoa izan behar den sare-lan hori, alegia, toki horren egoera eta testuinguru berrietara birmoldatzeko gaitasun eta azkartasuna ere izan behar du; honen harira, hurrengo esperientzia.

3.3.1. Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarea (konfinamendu-garaian)

Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarea duela hamar urte baino gehiago sortu zen haurtzaroaren babesgabetasun-egoerak antzeman, artatu eta prebenitzeko ibilbide eta tresna partekatuak bilatzeko helburuarekin. Sarea hainbat erakunde publikok osatzen dute, hala nola: oinarritzko gizarte-zerbitzuek, udal-prebentzioko programak, osasun-zentroak eta auzoetako hiru ikastetxe publikoek.

2020-ko martxoan, pandemiaren etorrerarekin eta nahitaezko konfinamenduekin, Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarearen lana, beste ekimen asko bezala, eten egin zen. Sarearen bilerak ez ziren berriro hasi urri arte.

Testuinguru horretan, elkartzeko modua izan zen sareak birmoldatu behar izan zuen lehenengo gauza; aurrez aurreko elkarguneak mantentzeko oztopo eta debekua zela eta, sareko profesionalak *online* moduan elkartzeko formula (aurrerago ohitura bihurtu zena) hartu behar izan zuten.

Baina lehenengo momentuetan eragozpenak sortu zituen elkartzeko modu "berri" honek, auzoetako haurren egoeraren haria ez galtzeko eta sarearen ekintzak azkartasunez birmoldatzeko atea ireki zuen; hots, *online* formatuak ahalbidetu zuen haurtzaroaren diagnostiko partekatua diseinatzea:

Konfinamenduak eragin negatiboa izan zuen auzoko haurren egoeran eta, bereziki, gizarte eta kultura aldetik egoera ahulenean zeuden haurrengan. Auzoko haurren diagnostiko arin eta azkar bat egiteko beharra ikusi zen, konfinamendua nola bizi izan zuten eta egungo egoera zein zen aztertzeko, hau da, pandemiak eragindako haurtzaroaren egoeraren argakia lortu nahi izan zen. (RETSASO UPNA, 2022b: 2m08s)

Ezinbestekotzat jo zen auzoko haurren zuzeneko iritzia izatea eta, horretarako, ikastetxeek, sarean adostutako gidoian oinarrituta noski, ikasleei eta irakasleei zuzendutako bi galdetegi diseinatu zituzten.

Sareko (eta beraz, komunitateko) erakundeek egiten zuten lanaren egokitzapenaren azkartasunari esker,

diagnostikoa arin eta modu koordinatuan abiarazi ahal izan zen; eta, gainera, diagnostikoa elkarlanean egiteak aukera eman zuen hura konfinamendualdi osoan luzatzeko, eta, beraz, emaitza konparatibo interesgarriak lortu ziren:

Auzoko ikastetxeetako haurren errealitateak oso desberdinak diren arren, ondorioak nahiko antzekoak izan ziren. Konfinamendu garaian auzoko haurrek partekatutako sentimenduak tristura, frustrazioa, haserrea, apatia, beldurra, asperdura, bakardadea eta antsietatea izan ziren. Konfinamendua amaitu ondoren, oso pozik sentitzen ziren ikaskideak, irakasleak eta familiak ikusi eta haiekin harremanetan jarri ahal izatean, baina, aldi berean, urduritasuna adierazten zuten topaketaren aurrean, frustrazioa agertzen zen, askotan, gaixotasunarekiko beldurra zela-eta. (RETSASO UPNA, 2022b: 3m27s)

Gainera eta komentatu den moduan, topatzeko ezintasunagatik kolektibo eta ekimen askok beren ekintzak eten zituzten egoera batean, Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako sarearen egokitzapen azkar horrek ekimen zehatzen diseinua ere erraztu zuen: "Hau dela eta, aisialdiko eta aire zabaleko kiroleko jarduerak diseinatzea planteatu zen, kulturartekotasuna eta osasuna zeharka barne hartuz, eta, aldi berean, auzoko haurren arteko topaketa sustatuz" (RETSASO UPNA, 2022b: 4m30s).

Hala, Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarearen esperientziak errealitate garrantzitsu bat erakusten du. Izan ere, sareko-lanak babes komunitariorako dituen potentzialtasunen ideia finkatuaz gain, metodologia horrek babesgabetasun-egoerei azkarrago heltzea ahalbidetzen du bat-batean sortutako egoeretan, bai diagnostiko ekintzetan, bai esku-hartzeko ekintzetan ere:

Sarea zegoenez, azkar martxan jarri ahal izan genuen. Horrek aukera eman zigun txikientzako jarduera-proposamenak azkar egiteko. Lehengo koordinazio eta egitura hori ez balego, gehiago kostatuko zen gure lana auzoko haurren gizarte-eta hezkuntza-premia berrietara moldatzea. (Azpilagaña eta Milagrosa auzoetako Haurtzaro Sarearen partaidea, udal-prebentziozko programaren gizarte-langilea)

3.4. Laugarren-estrategia: ikerketa, aktibismoa eta desberdintasunaren aldarrikapena

Gizarte-langintzako ekintza komunitarioak lurraldearen eta testuinguruaren ezagutzatik eraiki behar dira beti; horregatik ikerketa-prozesuek garrantzi handia dute, bai ezagutza horren sinesgarritasuna bermatzeko, bai ereduaren ekintzak ezagutza horiei etengabe egokitzeko.

Hortaz eta besteak beste, errealitatearen ezagutza izango da ikerketa-estrategia komunitarioaren helburua. Eta estrategia horren xedea eta modu batez

edo bestez, gizarte eraldatzea izango da, betiere hobekuntza komun baten alde. Hala, ikerketa parte-hartzailea eta praktikoa izan behar da, parte hartzen duten eragileen kezak, proposamenak eta ahuleziak/indarguneak jasotzen jakin behar du, eragile horietatik ekintzak gauzatu ahal izateko. Horretaz, ikerketa eta ekintza parte-hartzaileaz, hitz egiten du Villasantek (2015), gizarte eraldatzeko ikerkuntzaren eta parte-hartzearen alde apustu egiten duenean.

Horrela, ikerketa eta ekintza parte-hartzailea, gizarte-langintza komunitarioaren ekintzak garatzeko ikerketa prozesu propio eta egokiena da, gutxienez, kontzeptua ulertzen ari garenen baldintzapean: "Taldea edo komunitate zapaldu bateko kideek informazioa biltzeko eta aztertzeko eta beren arazoan gainean jarduteko prozesua da, irtenbideak aurkitzeko eta eraldaketa politiko eta sozialak sustatzeko helburuarekin" (Duarte Hidalgo, 2017: 192).

Eta ikerketa prozesu hori, jakina, lagundua da; bi dira laguntza horren baldintzak edo oinarriak, eta, beraz, hori egiten duen figura teknikoarenak, hots, gizarte-langilearenak. Lehenik, artikuluari hasiera emateko dekalogo horretan aipatu dugun zerbait: "lokatzaren", "bizitzaren munduaren" (Habermas, 1992), hurbiltasunaren eta egunerokotasunaren balioa; hau da, herritarren eta auzokideen parte-hartzea: "Ikerketa-ekintzan, funtsezkoa da herri-jakituriak, sen onak eta herriaren kulturak betetzen duten eginkizuna ezagutzea eta balioestea, ezagutza zientifikoak lortzeko eta sortzeko" (Fals, 2009: 279).

Eta, bigarrenik, aktibismo zientifikoa; hau da, ikerketa militante eta konprometituaren aldeko apustua, zientziaren rol kontrolatzaile eta monopolizatzailearen kaltetan:

Ikertzailea taldeak hasitako kausaren aktibista bihurtzen da; lagundu egiten du, aholkatu egiten du eta haiekin lan egiten du gizarte-konpromisoaren logika batetik. Hemen ez dira sartzen utilitarismoak eta erosotasunak. Pertsonen eskubideak dituzten gizaki gisa hartzen dute beren existentzia, komunitateek beren kontzientzia eta nortasun propioa berritzen dute. Mugimenduak beren jakintzez elikatzen dira eta herri-jakintzek esku-hartzeak elikatzen dituzte; beraz, ezinbestekoa da auzo-zentzuekin, herri-zentzuekin eta populazio-zentzuekin konektatzea. (Jarpa-Arriagada, 2020: 320)

Zentzu horretan, lehenago komentatutako Sennett-en (2005) "gu desberdin" horren ideia berreskura dezakegu, esan bezala, gatazkak partekatzean eta desberdintasunak ulertzean oinarritutako "gu" bat: elkar zaintzeko eta konpromisotik, konfiantzatik eta erantzukizun partekatutik abiatuta eraikitzen dena. Horrela, Sennett-en ustez, komunitateak ezin dira motibazio komunetik eraiki, baizik eta norberaren interesak partekatuz sortutako ekintza komun batetik, ezberdintasunak aitortuz eta horien gainean komunitateak eraikiz.

Hala ere, egoera batzuetan, ezberdintasun horiek aldarrikatu egin behar dira, ezkutatuta baitaude. Horrela, egoera eta errealtate guztiak taldean aintzat hartzeko eta elkar aitortzeko, ezberdintasun horien aldarrikapena indartu behar da, eragileen aniztasunetik komunitatea sustatzen laguntzeko.

Egoera honen aurrean, ikerketa eta ekintza parte-hartzailearen prozesuek ezin dituzte lehen komentatu ditugun hierarkizazio asistentzialista horiek erreproduzitu, izan ere, horrelako prozesuek "ezkutuan" mantentzen dituzte aipatutako ezberdintasunak (Marchioni, 2006). Ikerketa prozesuak hasieratik partekatuta behar dira, baldintzen parekotasunean eta komunitate guztiaren onuraren alde.

Horrela, partekatze horrek komunitatean inplikaturako pertsona guztien ekarpenak integratzen jakin behar du eta, noski, integratu ahal izan behar ditu: hainbat esparrutan elkarlan positiborako potentzialtasunak berretsiz, inplikazioaren aldeko apustua eginez eta pertsonen eragiten dieten politiken, zerbitzuen eta programen garapenean parte-hartze osoa sustatuz. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte-langintza komunitarioa gauzatzean aniztasuna eta ezberdintasuna kontuan hartzea eta bere estrategiak egokitzea hura ahalik eta gehien aintzat hartzeko.

3.4.1. Mejorana elkarteak

Mejorana elkarteak, osasun mentaleko zerbitzuen erabiltzaileek zuzendu, osatu eta kudeatzen duten erakundeak dira, eta 2007-tik ari dira Nafarroan lanean. Elkartearen helburua nagusia psikiatrizatutako pertsonen duintasuna babestea, ahalduntzea sustatzea eta autonomia bultzatzea da, betiere tratamendu psikiatrikoaren kontsiderazio integral eta holistikotik abiatuta, eta, beraz, nagusi den ikuskera biologizista hutsetik ihesiz.

Elkarteak oinarritzeko bi programa garatzen ditu: lehena eta astero biltzen diren elkarri laguntzeko hiru taldetan egituratua, autozaintzara eta aurreko lerroetan genioen zaintza kolektibo horretara bideratuta dago; Elkarri Laguntzeko Taldea du izena, hain zuzen ere. Bigarrena, berriz, gizartean parte hartzeko eta mobilizatzeko programa da, eta hainbat jarduera antolatzen ditu, hala nola: "Aktibismoa eta Osasun Mentala" urteko jardunaldiak, hitzaldiak, kongresuak, elkarbizitza ludiko-sortzaileak, eta Harrotasun Eroaren Egunaren urteroko topaketa.

Aipatutako azkena, Harrotasun Eroaren Eguna, desberdintasuna ikusarazteko eta aldarrikatzeko benetako adibidea da; desberdintasun hori aintzat hartu behar da "asmo paternalistatik gabe, komunitateen eta auzotarren potentzial anitza onartzuz" (Mejorana elkarteko partaidea). Horretarako, aktibismo soziala eta eragin politikoaren helburua funtsezko elementuak dira elkartearen lanean. Mejorana elkarteak ezinbestekotzat jotzen du bere burua agerian uztea, entzunaraztea eta pertsona psikiatrizatutako (haien errealtateak eta aldarrikapenak)

eremu sozial eta politiko guztietan aktiboki egotearen alde borrokatzea.

Ildo horretan, Caplan-ek proposatzen duen zerbitzu berreskura dezakegu: gizabanakotik "haratago" garmatzen lehen-mailako ikuspegi prebentiboa; alegia, pertsonaren inguruaren eragina eta errealtate komunitarioaren elkarreragina aintzat hartzen duen ikuspegia:

Ez dator bat, beraz, paziente indibidualari zuzendutako psikiatriarekin, pertsona bakar batengan zentratzen baita eta subjektu horri eragiten diotenean soilik arduratzen baita eragin orokorrez. Lehen-mailako prebentzio-programa batek pertsona bat talde baten ordezkari gisa hartzen duenean, pertsona horren tratamendua pertsona horren premiek ez ezik, horrek ordezkatzeko duen arazo komunitarioarekin eta arazo horri aurre egiteko baliabide eskuragarriekin duen erlazioak ere baldintzatzen du. (Caplan, 1996, Domínguez Alonso-n aipaturik, 2001: 43)

Baina kontuan hartu behar dugu ezberdintasunaren integrazio hori komunitateko eragile guztiekin landu behar dela, eta ez kolektibo desberdineko pertsonekin bakarrik, Marchionik (2019b: 0m14s), ohiz kanpoko modu batean (pasadizo gisa) ilustratzen duen modura:

Funtsean, teoria komunitarioaren oinarrian nire haurtzaroko eta nerabezaroko txiste zahar bat dago, gizon bat erotu egin zela eta gari ale bat zela uste zuela esan zidatenean, eta oiloek eta txoriek jango ote zuten beldur nintzen. Jakina, ospitale psikiatrikoan sartu zuten, eroetxean, tratatu eta, handik denbora batera, osasuntsu kaleratu zuten. Baina jauna, Jose zeritzona, hurrengo astean itzultzen zen psikiatraren bila, eta psikiatrak galdetzen zion:

«—Baina badakizu ez zarela gari ale bat, ezta?

—Bai, doktore, lan bikaina egin duzu. Badakit ez naizela gari ale bat, baina arazo bat dago...

—Zein da arazoa, Jose jauna?

—Hango jendeak, oiloek, ez dakite jada ez naizela gari ale bat.»

Eta hemen dago gai komunitarioa: oiloekin ere lan egiten ez badugu, beti egongo dira gari-aleak.

Eta errealtate komunitario hori ezberdintasunez beteta dago, eta hortik dator bere aberastasuna; hor, gizarte-langintza komunitarioaren betebeharrak eta garrantzia desberdintasunaren potentziala aintzat hartzeko eta "aprobetxatzeko". Aitzitik, batzuetan, asimilatu gabeko kontsiderazioa da hau, eta, beraz, aldarrikapena eta aktibismoa ezinbestekoak izan behar dira lanbidean aritzeko ere.

Gainera, desberdinak garela eta pertsona guztiok desberdintasun horiekin bizitzen ikasi behar dugula aldarrikatzea funtsezkoa da, baina funtsezkoa da pertsona guztietatik egitea, baita gurekin lan egiten duten profesioletatik ere, baita gauden lekuetan,

gure auzoetan eta jendearekin elkartzen garen lekuetan lan egiten duten gizarte-langileetatik ere. (Mejorana elkarteko partaidea)

4. Ondorioak: prebentzio-ekintza gizarte-langintza komunitarioen metodologia gisa

Gaingiroki, prebentzioaz hitz egitea aurretiaz hitz egitea da; alegia, ustez negatiboa den zerbait gertatu aurretik behar diren neurriak hartzeaz; betiere prebentzioa, eraldaketa sozial, horizontal eta partekatua ikuspegitik ulertuta: "Prebentzioak esan nahi du 'behetik' planifikatu behar dela, premiarik gabe, koordinazio horizontala ezarri eta garatutako jarduerekin zerikusia duten guztien laguntzarekin" (Domínguez Alonso, 2001: 139).

Alde batetik, artikulua lehen-atalean identifikatu ditugun oinarriek komunitatearen prebentziorako potentziala adierazten dute; eta, bestetik, bigarren-atalean berreskuratu ditugun estrategiek gizarte-langintza komunitarioaren prebentziorako gaitasunak agerian uzten dituzte, alegia:

- Komunitatearen sustapena errespetuz egitea: batetik komunitateko errealitatearen dinamikekin, denborekin, jakintzekin eta abiadurekin errespetuz jokatzea, esku-hartze inbaditzailerik gabe (*managementetik* gabe); eta bestetik, parte-hartze inplikatio, kritiko eta lokalarekin, hasieratik partekatutako prozesuetatik garatzea. Hori guztia inor prebentzio-estrategia orokorraren "atzean" ez uzteko, adostutako zenbait eskakizun bete behar izateagatik edo kalitatez parte hartzeko guneak ez aurkitzeagatik.
- Bizikidetzeta eta elkarrekiko laguntza, harreman komunitarioen oinarri gisa: bizilagunen eta komunitateen arteko harremanak, bai eta alderdi tekniko-komunitarioetako ere, presentzia erreferentzialtzat eta jarraitutzat batetik eraikita. Hori guztia prebentzio-egitura jasangarriari eutsiko dioten harreman sakonak, hurbilak eta elkarren laguntzakoak eraikitzeko.
- Sareko lana, horizontaltasun harreman komunitario batetik abiatuta, ekintza-eragileen arteko loturak sortuz, haien erresistentziak arinduz eta haien ahalmenak indartuz. Hori guztia hainbat eragileren (auzotarren eta erakunderen) arteko koordinazioari eusteko, eta estaldura handiagoko prebentzio-ekintzak (eta babeserako esku-hartzeak) egin ahal izateko, baita premiako eta bat-bateko egoeretan ere.
- Ikerketa eta ekintza parte-hartzailea, errealitatea ezagutzeko eta ekintza prebentiboa etengabe komunitateko egoerari egokitzeko. Baita komunitatean zaugarritasun-egoeran dauden pertsona eta kolektiboak diagnostiko, parte-hartze eta ekintza-prozesuetan harrera emateko.

Beraz, ondoriozta dezakegu, prebentzioa eta komunitatea lotuta daudela. Harreman hori, adituek eta araudiek diotenaz gain (Gimeno Monterde, 2022; Lillo eta Roselló, 2004; Nazio Batuen Erakundea, 2010), agerian geratu da mahaigaineratu ditugun lau esperientzietan. Izan ere, komunitatetik prebentzioa ematen da:

- Inposizioak baztertuta errespetuzko gizarte-langintza komunitarioaren prozesuetatik esku hartzen denean, eragile komunitarioen parte-hartzea sustatzen denean eta parte-hartze hori baldintza berdinetan mantentzen denean (Buztintxureando Txuri haur eta gazte elkarte).
- Bizikidetzak, laguntzeak eta elkarrekiko babesak pertsonak ahalduz dituztenean; eta erlazio hauetatik eraikitzen diren proiektu komunitarioak jasangarriak bihurtzen direnean (Jakitoki proiektua).
- Lurraldean, eta larrialdiko hainbat egoeratan, elkarrekin konektatutako sarean modu partekatu eta koordinatuan lan egiten denean (Azpilagañako eta Milagrosako Haurren Sarea).
- Prozesu komunitarioen osotasunen "ezberdintasunarekin" arduraz jokatzeko, hau da, hauek artatu eta aldarrikatzeko aktibismo-prozesuak sustatzen direnean (Mejorana elkarte).

Hori izan liteke aurkezten den artikulua ondorio nagusia, hots, aurkeztu ditugun estrategiak biltzen dituen esku-hartze metodologia bat dagoela pentsatzea: prebentzio komunitarioaren metodologia hain zuzen ere, babeslea eta integrala dena.

Alde batetik, prebentzio komunitarioak bere babes-gaitasuna garatzen du partekatutako baliabide eta harremanetatik, eta hauen hurbilekotasunetik askotan komunak diren "mehatxuei" maila ezberdinetan aurre egiteko:

Esku-hartze komunitarioaren ezaugarri nagusia, besteak beste, gizarte-arazoak konpontzeko prozesuetan komunitate bateko pertsonen, familien eta taldeen baliabide naturalak integratzea da. Baliabide natural horiek indartu, sortu edo osatuko dituzten estrategia zehatzak lantzen ari gara prebentzio komunitarioaren maila desberdinetan, eta horietako edozeinetatik gainerako mailetan eragiten ari gara. (Lillo eta Roselló, 2004: 133)

Bestetik, beharrezkoa da prebentzio hori ekintzaren ikuspegi integral batetik egitea. Horretarako, Nazio Batuen Erakundeak diotenari jarrai diezaiokegu eta komunitateekiko ekintzaren esparruan prebentzio-prozesu integral baten oinarriak eraikitzen dituzten elementuak hiru direla pentsa dezakegu: 1) partaidetzeta-izaera izatea, komunitateak legitimatua eta adostua; 2) talde edota "problematika minoritarioekiko" prozesu inklusiboetatik garatzea; eta 3) ekintza demokratikoko modalitate bat izatea, tokiko mailatik sortu eta kudeatua.

Ekintza prebentiboaren ikuspegi integrala hurbil eta eskuragarri dauden baliabideen aberastasunak

probetea hartu behar du erronkatzat; esan bezala, esku-hartzeari jasangarritasuna emateko eta bizilagunak ahalduntzeko:

Estrategiaren erronketako bat auzoan dauden baliabideetatik bertatik lanari ekitea da. Auzoko baliabideak (hala nola bizilagunen gaitasunak, tokiko istorioak eta aurreko esperientziak, ekipamenduak, besteak beste) txertatzea da, dagoena aitortzea da, egin nahi dena tokiko errealitatera egokitzea da, integratzea eta erantzukizunak ematea da. (Nazio Batuen Erakundea, 2010: 59)

Baina gizarte-langintza komunitarioaren etorkizunerako erronka gehiago aurki ditzakegu. Artikulu honetan aurkeztutako lanetik, hau da, gizarte-langintza komunitarioaren oinarrien berrikuspen teorikotik eta Iruñeko ekimenetatik

berreskuratutako ekintza-estrategien azterketatik, gizarte-langintzako lanbidearen jardunarekin lotura zuzena duen ikerketa erronka bat identifika dezakegu ingurune komunitarioan: "laneko" eta "herri-laneko" jardunbideen existentziari eta bizikidetzari buruz ikertzen jarraitzea.

Izan ere, garatutako landa-lanak ere zerbait agerian jartzen du: bai "lan ekintzek", bai "herri ekintzek" gizarte-langintza komunitario bat garatzen laguntzen dutela, hasieran aipatu ditugun oinarrien ildotik. Aztertutako esperientzietan behintzat, prebentzio-ekintza eta esku-hartze babeslea ezin izango lirateke gauzatu inplikaturako boluntarioen eta partaideen sarerik gabe. Horregatik, dinamika horiek nola lotzen diren jakitea komeni da, gizarte-langintzaren metodologia eta estrategia komunitarioak ezagutzen jarraitzeko eta komunitate babesleen eraikuntza teorikoaren mesedetan.

- AGUILAR IDÁÑEZ, M. J. (2013): *Trabajo social: concepto y metodología*, Madril, Paraninfo; Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia.
- (2021): "La relación con la comunidad", in FOMBUENA, J. (koord.), *El trabajo social y su acción profesional*, Balentzia, Nau Llibres, 227.-249. or.
- BARAHONA, M. J. (2016): *Trabajo social: una disciplina y profesión a la luz de la historia*, Madril, Universidad Complutense de Madrid.
- BARREIX, J. eta CASTILLEJOS, S. (1985): *Trabajo en comunidad: análisis y perspectivas*, Mexiko, Universidad de Costa Rica.
- BERNUES, M. eta IBARRA, A. (2020): "Barrios de Pamplona y comarca se movilizan para crear una red solidaria de cuidados colectivos", *Diario de Noticias*, 2020-03-17, <<https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/comarca-pamplona/2020/03/17/barrios-pamplona-comarca-movilizan-crear/1031478.html>>.
- BLANCO, I.; GOMÀ, R. eta NEL-LO, O. (2022): "Solidaridades y bienestar colectivo: un futuro a construir", in NEL-LO, O.; BLANCO, I. eta GOMÀ, R. (ed.), *El apoyo mutuo en tiempos de crisis: la solidaridad ciudadana durante la pandemia Covid-19*, Buenos Aires, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales, 393.-414. or.
- CASTILLO TRIGO, R. (2009): "El trabajo en red. Reflexiones desde una experiencia", *Zerbitzuan*, 45. zk., 149.-162. or., <<https://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/El%20trabajo%20en%20red.pdf>>.
- DARWIN, C. R. (1982): *El origen del hombre. La selección natural y la sexual*, Madril, Edaf.
- DE ROBERTIS, C. (2012): "Evoluciones metodológicas del trabajo social en los nuevos contextos", *Azarbe, Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 1. zk., 43.-50. or., <<https://revistas.um.es/azarbe/article/view/151121>>.
- DOMÍNGUEZ ALONSO, F. J. (2001): "Actuaciones preventivas en contextos comunitarios. Una oportunidad, ¿necesidad?, para el trabajo social con enfoque comunitario", *Cuadernos de Trabajo Social*, 9. zk., 135.-167. or., <<https://doi.org/10.14198/ALTERN2001.9.8>>.
- DUARTE HIDALGO, C. M. (2017): "Trabajo social comunitario: perspectivas teóricas, metodológicas, éticas y políticas" [doktore tesia], Universidad Complutense de Madrid, <<https://hdl.handle.net/20.500.14352/22220>>.
- FALS, O. (2009): *Una sociología sentipensante para América Latina*, Bogota, Siglo del Hombre Editores.
- FERNÁNDEZ GARCÍA, T. eta LÓPEZ PELÁEZ, A. (2008): *Trabajo social comunitario: afrontando juntos los desafíos del siglo XXI*, Madril, Alianza.
- FUNES RIVAS, M. J. (1994): "Procesos de socialización y participación comunitaria: estudio de un caso", *Revista de Investigaciones Sociológicas*, 67. zk., 187.-205. or., <<https://doi.org/10.2307/40183740>>.
- GARCÍA-PÉREZ, Á. eta MENDÍA, R. (2015): "Acompañamiento educativo: el rol del educador en aprendizaje y servicio solidario", *Profesorado, Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 19. zk., 41.-58. or.
- GIMENO MONTERDE, C. (2022): *Trabajo social comunitario*, Zaragoza, Prensas de la Universidad de Zaragoza.
- GIZARTE-LANGINTZAREN KONTSEILU NAGUSIA (2012): *Código deontológico de trabajo social*, Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia, <http://www.consejotrabajosocialcyl.org/codigo_deontologico_2012.pdf>.

- (2014): *Declaración global de principios éticos del trabajo social*, Gizarte-langintzaren Kontseilu Nagusia, <<https://www.cgtrabajosocial.es/principioseticos>>.
- GIZARTE-LANGILEEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (2018): *Declaración global de principios éticos del trabajo social*, Gizarte-langileen Nazioarteko Federazioa, <<https://www.ifsw.org/global-social-work-statement-of-ethical-principles>>.
- HABERMAS, J. (1992): *Teoría de la acción comunicativa, II: crítica de la razón funcionalista*, Madril, Taurus.
- HART, R. A. (1993): *La participación de los niños: de la participación simbólica a la participación auténtica*, Florencia, Unicef Innocenti Research Centre.
- JARPA-ARRIAGADA, C. G. (2020): "Prácticas de resistencia y trabajo social comunitario: forcejeos y tensiones ante las lógicas de dominación del modelo colonial y capitalista", *Eleuthera*, 22. zk., 309.-326. or., <<https://doi.org/10.17151/eleu.2020.22.2.18>>.
- JÁUREGUI, A. J. (2017): "El protagonismo infantil comunitario como estrategia socioeducativa de protección a la infancia en barrios" [kongresu-komunikazioa], 4º Congreso Latinoamericano y Caribeño de Ciencias Sociales, Salamanca, <<https://www.observatoriodelainfancia.es/participanda/sandubitxiak/>>.
- KISNERMAN, N. (1998): *Pensar el trabajo social: una introducción desde el construccionismo*, Buenos Aires, Lumen Humanitas.
- KROPOTKIN, P. (1989): *El apoyo mutuo, un factor de la evolución*, Madril, Madre Tierra.
- LILLO, N. L. eta ROSELLÓ, E. (2004): *Manual para el trabajo social comunitario*, Madril, Narcea.
- LUHMANN, N. (1998): *Complejidad y modernidad: de la unidad a la diferencia*, Madril, Trotta.
- MARCHIONI, M. (2004): *La acción social en y con la comunidad*, Zaragoza, Libros Certeza.
- (2006): "Democracia participativa y crisis de la política. La experiencia de los planes comunitarios", *Cuadernos de Trabajo Social*, 19. zk., 213.-224. or., <<https://revistas.ucm.es/index.php/CUTS/article/view/CUTS0606110213A>>.
- (2014): "De las comunidades y de lo comunitario", *Espacios Transnacionales*, 3. zk., 112.-118. or., <https://espaciostransnacionales.xoc.uam.mx/wp-content/uploads/2023/01/ET_03_Marchioni.pdf>.
- (2019a): *La metodología comunitaria* [bideoa], Glosario de Marco Marchioni saila, 7. zk., Asociación Intermediación, <https://www.youtube.com/watch?v=8Q_MuESwftl>.
- (2019b): *Las gallinas y el grano de trigo* [bideoa], Glosario de Marco Marchioni saila, 2. zk., Asociación Intermediación, <https://www.youtube.com/watch?v=uAumMFL_ZM>.
- MURGA-MENOYO, M. Á. eta NOVO, M. (2017): "Sostenibilidad, desarrollo glocal y ciudadanía planetaria: referentes de una pedagogía para el desarrollo sostenible", *Teoría de la Educación, Revista Interuniversitaria*, 29. zk., 55.-78. or., <<https://revistas.usal.es/tres/index.php/1130-3743/article/view/teoredu2915579>>.
- NEL'LO, O.; BLANCO, I. eta GOMÀ, R. (2022): *El apoyo mutuo en tiempos de crisis. La solidaridad ciudadana durante la pandemia Covid-19*, Buenos Aires, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales.
- NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (2010): *Guía para la prevención en barrios. Hacia políticas de cohesión social y seguridad ciudadana*, Santiago de Chile, NU-Habitat; Universidad Alberto Hurtado de Chile.
- RETSASO UPNA (2022a): *Apoyo mutuo: redes de cuidados vecinales* [bideoa], RETSASO UPNA, <<https://www.youtube.com/watch?v=NPjyXFf3hkg>>.
- (2022b): *Trabajo en red: de la protección a la promoción en la infancia* [bideoa], RETSASO UPNA, <<https://www.youtube.com/watch?v=2EHAJrlqTYs&t=148s>>.
- RUBIO, J. L. eta PUIG, G. (2015): *Tutores de la resiliencia. Dame un punto de apoyo y moveré MI mundo*, Bartzelona, Gedisa.
- SANCHO SALIDO, J. (2009): "Por una reconstrucción del concepto de comunidad que sea de utilidad para el trabajo social", in HERNÁNDEZ ARISTU, J., *Trabajo social comunitario en la sociedad individualizada*, Balentzia, Nau Llibres, 55.-92. or.
- SARASA, H. (2023): "Mutualidad negada. Adolescencia y acogimiento residencial básico en Navarra: realidad y propuestas desde el trabajo social comunitario" [doktoro tesia], Nafarroako Unibertsitate Publikoa, <<https://doi.org/10.48035/Tesis/2454/44853>>.
- SENNETT, R. (2005): *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*, Bartzelona, Anagrama.
- LEÓN SOLARTE, M. A. eta JAIME MARTÍNEZ, N. L. (2020): "Con las batas y las botas, el médico más allá del hospital; la experiencia de residentes de medicina familiar en una comunidad urbana", *Salud y Sociedad UPTC*, 5. zk., 1.-19. or., <https://revistas.uptc.edu.co/index.php/salud_sociedad/article/view/12007>.
- SPADE, D. (2022): *Apoyo mutuo: construir solidaridad en sociedades en crisis*, Madril, Traficantes de Sueños.
- VILLASANTE, T. R. (2006). "Lo comunitario y sus saltos creativos", *Cuadernos de Trabajo Social*, 19. zk., 225.-254. or., <<https://revistas.ucm.es/index.php/CUTS/article/view/CUTS0606110225A>>.
- (2015): "Conjuntos de acción y grupos motores para la transformación ambiental", *Política y Sociedad*, 52. zk., 387.-408. or., <<https://doi.org/10.5209/rev-POSO.2015.v52.n2.45204>>.